

Probintzien artean aldea dago tratu txarren biktimen arretan

Konpetentziak zehaztea, langileak trebatzea eta baliabideak ugaritzea dira premiariak behienak

ERREDAKZIOA

Bilbo

Tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeei arreta ezberdina eskaintzen zaie Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Aldea dago lurraldeen artean. Eta baliabideak falta dira. Emakume horiei eskaintzen zaien arretan lan asko dagoela egiteko esan zuen atzo Izaskun Moiuak Emakundeko zuzendariak, Eusko Legebiltzarreko Emakumeak eta Gazteria Batzordean.

Emakumeen aurkako indarkeriaz arduratzen diren gizarte zerbitzuen azterketa jasotzen duen txostena aurkeztu zuen Moiuak. 83 elkarte eta 22 biktimaren esperien-

tzian oinarritu dira azterketa egiteko. Berdintasunerako Legearen eskaera da azterketa.

Txostenaren arabera, «jarraitzen ari den bidea ona da, baina oraindik lan asko dago egiteko». Gai honen inguruko eskumenak foru aldundien, udaletxeen eta mankomunitateen artean modu desberdinean banatzen direnez, desberdintasunak gertatzen dira lurralde batetik bestera.

Hori aurre egiteko, Moiuaren ustetan, «nahitaezkoa da eskumenak zeini dagozkion zehaztea eta erakundeen arteko elkarlana». Herri eta eskualde mailako protokoloen beharra azpimarratu zuen.

Txostenak erakusten duen beste urritasunetako bat prebentzio kanpainena da. Gizarte zerbitzuen %48 baino ez ditu prebentzio lanak egiten. Hirutik batek bakarrik egiten dituzte tratu txarrak atzemateko kanpainak. Gizarte zerbitzuek diote ez daukatela baliabiderik ho-

rretarako, edo prestakuntza falta dutela.

Hori horrela, gizarte zerbitzuetako langileen prestakuntza asko hobetu behar dela adierazi zuen Moiuak. «Zerbitzu hauen zeregina biktimari informazioa ematea da, gertatzen ari zaiona uler dezan, baina lan hori ez da egiten, betebehari hori dutenek prestakuntza falta dutelako». Aztertutako langileen erdiek jaso dute behar zuten trebakuntza. %20k beren kasa ikasi dute.

EMAKUMEEN HITZA. Tratu txarrak pairatu dituzten 22 emakume horiek erakundeen aldetik jasotako laguntzaren garrantzia azpimarratu dute. Haien esanetan, laguntzak «funtsezkoak» izan dira tratu txarrak bazterrean uzteko. Halere, laguntzak eskatu dituzte, gizartetzeko eta lana lortzeko. Diote askotan sortutako itxaropena ez datorrela bat topatzen duten erreali-



Loredana Andriesuren hilketaren salatzeko egindako elkarretaratzetako irudia, Basaurin, ia zozkoan. MARI SOL RAIMIREZ / ARGAZKI PRESS

Emakumeak kontratatzen dituztenak saritu behar direla uste du Azkarragak

AGENTZIAK

Gasteiz

Emakumeak lan munduan gizonen baldintza berberetan sartzeko neurriak bultzatu behar direla azpimarratu du Joseba Azkarragak, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua. Gaur egun ezberdintasun hori gertatzen dela nabarmendu du Azkarragak, eta, hori buka dadin, berdintasunaren aldeko neurriak hartzearen alde agertu da. «Emakumea kontratatzen duen enpresa saritu egin behar da».

Euskal gizarteak berdintasunaren alde «garrasi» egiten duela


adierazi zuen Azkarragak Bilbon, Abokatutzaren Euskal Kontseiluak egindako jardunaldietan. Gobernuak gizartearen eskari horri erantzun behar diola azpimarratu zuen bertan. Baldintza berdintasuna eskaintzen duten lanpostuetarako sarbidea sustatu behar du gobernuak horretarako.

Lanaren eta lanetik kanpoko bizitzaren arteko oreka bermatzea eta bikotearen lan banaketa ere garrantzitsuak dira, Azkarragaren iritziz. Jaurlaritzak emakumeek lanak pila ez ditzaten hartu dituen neurriak gogora ekarri zituen, seme-alabak izateagatik baimenak

eta lanaldi murrizketak kasu. Alor horretan lortutako emaitzak espero ez zituztela onartu zuen, horretaz baliatu zirenen artean %5 baino ez baitziren izan gizonak.

BIDE LUZEA EGITEKO. Egindako lana azpimarratu zuen Azkarragak, baina berdintasuna lortu arte «bide luzea» gelditzen dela onartu zuen. Horretarako, Jaurlaritzak lan munduan sartzeko errazteko egingo dituen programetan berdintasunaren aldeko neurriak hartuko dituela esan zuen. «Lanean izaten den sexu jazarpena bukatzea» ere azpimarratu zuen.

iAstelehena
iAsteartea
iAsteazkena
iOsteguna
iOstirala
iLarunbata
ilgandea



Konekta zaitez kutxanet-era eta eskura ezazu
iPod 80 GB bat egunero.

Irailaren 6tik urriaren 10era bitarte, kutxanetara eguneko lehen konexioa egiterakoan, **iPod 80 GB** eskura dezakezu.

Irabazi kutxanetekin eta jardun **kutxa**ko zure bulegoarekin eguneroko 24 orduz, urteko 365 egunez.

Sustapenaren oinarriak ikusteko: www.kutxa.net

kutxa.net

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net kutxa